



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko otsailaren 25a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Legea, Nafarroako 2003ko kontu orokorreari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da Zigor Kodearen erreformarako azterketa eta eztabaida prozesuari ekin diezaion. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzatesten du “frankismoaren esklaboek” Nafarroako hainbat azpiegituretan eginiko lana. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tokiko telebista digitalaren barruti berrien kontzesioa kudea dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modulu aurrefabrikatuak ken ditzan ikastetxe publikoetatik. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan liburutegi publikoen sarean gertatzen diren bajak ordezteko. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Adierazpen politikoa, holokaustoaren oroimenezkoa eta gizateriaren kontrako krimenen prebentzioaren aldekoa. Osoko Bilkurak berretsia (6. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako 2003ko kontu orokorreari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2005eko otsailaren 17an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2003ko kontu orokorreari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2005eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako 2003ko kontu orokorreari buruzko Foru Legea

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio aurrekontu orokorrak prestatu eta kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 110. artikulua Ekonomía eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura igorri behar dira foru lege proiektu bidez, 8/1988 Foru Legearen 115. artikulua hala agintzen baitu.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2003ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz adierazitako tramiteak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2003ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 151. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezkoa da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egin dira Nafarroako 2003ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen 113., 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Ondoko agiritan ageri da haien edukia:

I. LIBURUKIA. Hurrengoak biltzen ditu: Nafarroako Parlamentuaren kontuak, Comptos Ganberarenak, Arartekoarenak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta bere erakunde autonomoen kontuak, sozietate publikoen kontuak eta Nafarroako 2003ko aurrekontu orokorren exekuzioaren azterketa. Liburuki honetan, besteak beste, ageri hauek jaso dira:

– Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioko egoera-orriak.

– Egoeraren balantze orokorra.

– Emaizten kontua.

– Funtsen jatorriaren eta aplikazioaren egoera-orria.

– Diruzaintzako kontu orokorra.

– Zorpetzearen kontu orokorra.

– Ondasun, eskubide eta obligazioen inbentarioa.

– Aurreko ekitaldietatik kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen bilakaera eta egoera erakusten dituen egoera-orria.

– Ekitaldian, erabilera orokorrari lotutako jabari publikoko ondasunetan egindako inbertsioak erakusten dituen egoera-orria.

– Datozen ekitaldien kargura hartutako konpromisoen egoera orria.

II. eta III. LIBURUKIAK. Nafarroako Parlamentuaren, Comptos Ganberaren, Arartekoaren eta sozietate publikoen kontuen garapena.

IV. LIBURUKIA. Nafarroako aurrekontu orokorren likidazioa eta finantza-egoerak zehazten dituzten xehetasun-agiriak, 2003ko ekitaldiaren itxieran.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da Zigor Kodearen erreformarako azterketa eta eztabaida prozesuari ekin diezaion.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2005eko otsailaren 17an egin-dako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Gobernu zentrala premiatzen da Zigor Kodearen erreformarako azterketa eta eztabaida prozesuari ekin diezaion".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da Zigor Kodearen erreformarako azterketa eta eztabaida prozesuari ekin diezaion

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Zigor Kodearen aldaketa aztertu eta eztabaidatzeko prozesua abiaraz dezan, administrazio publikoaren aurkako delituen preskripzio-epea luzatzearen delituen ondorioek iritzi publikoarengan oihartzun berezia duten kasuetan, funtzionario-eroskeria kasuetan esaterako.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzatesten du "frankismoaren esklaboek" Nafarroako hainbat azpiegituretan eginiko lana.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2005eko otsailaren 17an egin-dako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Parlamentuak aintzatesten du "frankismoaren esklaboek" Nafarroako hainbat azpiegituretan eginiko lana".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzatesten du "frankismoaren esklaboek" Nafarroako hainbat azpiegituretan eginiko lana

Nafarroako Parlamentuak honakoa erabaki du:

1. Frankismoaren esklaboak deitu izan direnek Nafarroako azpiegituretan egindako lana aitortzea. Nafarroako kasuan, gutxienez ere 7.000 pertsona izan ziren, eta seguruena, bidean diren ikerketak bukatzen direnerako, 10.000 pertsona edo gehia-

go izan zirela jakinen da. Pertsona horiek guztiek zigorra pairatu zuten frankismoaren aurka egoteagatik eta demokraziaren, askatasunaren eta justizia sozialaren alde egiteagatik. Gainera, beren lanarekin Nafarroako azpiegiturak garatzen lagundu zuten; hori dela eta, erkidego honek zor bat dauka haiekin, eta ordain moral bat ezarriko du bai eta ordain ekonomikoa ere, ahal den neurrian kontsatsatzen saiatzeko, nahiz eta berandu izan eta orain zenbatezina den pairatu behar izan zuten sufrimendua, haietako batzuei ere heriotza ekarri zien sufrimendua.

2. Hori dela eta, Parlamentuak adierazten du gerrako espetxeratuek bortxazko lanak egitearen aurka dagoela.

3. 2004ko ekainaren 19an frankismoaren esklaboei egin zitzaizen omenaldirako Memoriaren Bideak elkarteak proposaturiko komunikatuarekin bat

dator Parlamentua. Omenaldia Igari-Bidankoze-Erronkari errepidean egin zen; errepide horretan, izan ere, langileen batailoietako eta soldadu langileen diziiplina-batailoietako faxismoaren aurkako 2.000 espetxeratu inguru aritu zen lanean, 1939tik 1941era.

4. Tokian tokiko elkarteekin eta udal erakundeekin batera era honetako aitorpen publikoak bul-tatzeko konpromisoa hartzea, Nafarroan bortxazko lanaren bidez egin ziren beste obra batzuk direla eta, halako moduan non errepide, trenbide edo azpiegiturak erabiltzen dituztenek jakinen baitute haiek zein egoeratan eraiki ziren.

5. Diziiplina-batailoietako langileen oroimenez jarritako monolitoaren aurkako ekintza bandalikoak arbuatzea, monolitoan gurutze gamatuak margotu eta plaka oroigarria hautsi dute eta.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da tokiko telebista digitalaren barruti berrien kontzesioa kudea dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2005eko otsailaren 17an egin-dako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da tokiko telebista digitalaren barruti berrien kontzesioa kudea dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da tokiko telebista digitalaren barruti berrien kontzesioa kudea dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Madrilgo Gobernuaren aitzinean egin beharrekoak egin ditzan, gutxienez ere beste bi barruti onartzeko Baztan, Bortziriak eta Malerrekarako eta Sakana, Larraun, Leitza eta abarrerako, herri horien eskari eta beharrak asetzearren.

2. Nafarroako Parlamentuak zuzenean igorriko dio erabaki hau Estatuko Gobernuari erabaki honen berri izan dezan, eta aintzat har dezala eskatuko dio.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modulu aurrefabrikatuak ken ditzan ikastetxe publikoetatik.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da modulu aurrefabrikatuak ken ditzan ikastetxe publikoetatik".

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 17an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2004ko azaroaren 22ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan liburutegi publikoen sarean gertatzen diren bajak ordezteko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan liburutegi publikoen sarean gertatzen diren bajak ordezteko".

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 17an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2004ko azaroaren 22ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Adierazpen politikoa, holokaustoaren oroimenezkoa eta gizateriaren kontrako krimenen prebentzioaren aldekoa.

OSOKO BILKURAK BERRETSIA


Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2005eko otsailaren 17an egindako bileran, erabaki zuen berrestea Eledunen Batzarrak 2005eko otsailaren 7an egindako bilkuran onetsi zuen adierazpen politikoa, holokaustoaren oroimenezkoa eta gizateriaren kontrako krimenen prebentzioaren aldekoa. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du Espainiako Gobernuaren erabakia, urtarrilaren

27a Holokaustoa oroitzeko eta gizateriaren kontrako krimenei aurrea hartzeko egun ofiziala izendatzen duena. Hartara, egun horretan gogora ekarriko dira nazien sarraskitze-esparruetan sufritu zuten eta hil ziren 10.000tik gora espainiarrak, erbesteratuak eta euren ideiak defenditzeagatik deportatu edo jazarriak izan ziren guztiak".

Iruñean, 2005eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	